

➤ **Erreklamazioa egiteko prozedura**

Emaitzarekin kontrako erreklamazioa aurkez dezakezu. Horretarako, IVAPeko webgunean argitaratutako erreklamazio-orria bete beharko duzu eta honako helbidera bidali:

IVAP  
Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzua  
Donostia-San Sebastian, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz

Erreklamazio-epea **ekainaren 18tik 24ra** artekoa izango da, biak barne.

Epaimahaiak zure azterketa berraztertuko du eta erabakia idatziz jakinaraziko dizu. Erreklamazioen ondorengo behin betiko emaitzak IVAPeko webgunean eta EHAAn argitaratuko dira, **uztailaren 26an**.

Idatzizko azterketaren emaitzen kontra jarritako erreklamazioaren ondorioz, emaitza GAI bada, erreklamazioaren emaitza jakinarazi eta gutxira, ahozko azterketa IVAPeko Lakuako egoitzan egiteko deia jasoko duzu.